

# “LEHEN AUKERA”: EZ LEHENA, EZ AUKERA



2013 urtearen hasieran, Eusko Jaularitzak 5.280 gazteri lehen lan aukera emango ziela iragarri zuen. Aukera hori Enplegua sustatzeko Planaren baitan aurreikusi zen. Zehazki, Lehen Aukera programan. Iñigo Urkullu lehendakariaren hitzetan *“hilabetean 600 eurekin finantzatuko ditugu lehen enpleguaren bila dagoen gazte bat kontratatzen duen enpresa (...). Horrela, 5.280 gazteri lan esperientzia bat eskaini nahi diegu”*<sup>1</sup>.

Eusko Jaularitzak hori agindu eta urtebetera, hainbat gizarte mugimendu, sindikatu, elkarte eta eragileetan parte hartzen dugun gazte anitz batu gara, honako hau salatzen:

**LEHEN AUKERA PROGRAMAK ez du benetako lehen enplegu bat lortzeko aukera ematen eta, gainera, GAZTEON PREKARIETATEA SUSTATZEN du diru publikoarekin.**

Zergatik diogu hau? Publikoki programa iragarri zutenean lehen enplegu bat lortzeko aukera izan behar zena, titulatu berri diren profesionalentzako **beke ez-laboral batean bihurtu** delako: lan kontraturik gabe gutxieneko lansaria baino baxuagoa den soldata baten truke jardunaldi osoan lan egitea eskatzen da eta, Hezkuntza Sailaren aurrekontuen lepora, enpresei guztiz dohainik irteten zaie langilea.

**Lehen enplegua deitetik “lehen lan esperientzia” deitzera pasatu da, baita “ordainsaridun formazioa”, “praktika bekatuak”, “konpentsazio beka”, “lan kapazitazioa”** edo **“hezkuntza espezializazioa”**<sup>2</sup> deitzera pasa dira eta, bide batez, programa honetan parte hartu dezakeguno lan eskubideak ukatu dizkigute.

Hori guztia, diru publikoz ordaindua eta Eusko Jaularitzak bultzatua.

2013 urtean zehar, Lehen Aukera bi hitzarmenen bidez gauzatu da: bata Lanbide Heziketarekin eta bestea euskal unibertsitateekin, 600 eta 600 beka ez-laboral eskaintzeko (bigarrenak 2014an gauzatzeko). Emaizak ez dira publiko egin eta ez ditugu eskuragarri, batik bat hitzarmen hauek oraindik gauzatzen ari direlako, baina arrazoi ugari daude gure ustez programa honek gazteon beharrei erantzuten ez diela eta gure egoera okertzen laguntzen duela esateko:

## **1// Programa honetan parte hartzen dutenek ez dute lan kontraturik izango.**

Berez, programan parte hartzeak ez du suposatzen harreman zuzen bat dagoenik langile eta enpresaren artean. Izan ere, bakoitzak akordio independente bat sinatzen baitu heziketa zentroarekin (Lanbide Heziketa zentroa edo Unibertsitatea).

<sup>1</sup> Diskurtsoaren zatia, online: <http://www.eitb.com/es/noticias/economia/crisis-economica/detalle/1295294/empleo-euskadiurkullu-anuncia-ayudas-empresas-contraten-jovenes/>

<sup>2</sup> Hainbat deialdi eta diskurtso publikoetan Lehen Aukerari emandako izenak.

Lan harreman zuzen bat izatea berebizikoa da lan eskubideak bermatuta izateko, bai lanak irauten duen bitartean, bai ondorengo balizko kontratazio bati dagokionez (enpresa berean zein beste batean) eta baita lanaldiaren ostean beste eskubide batzuk eskuratzeko ere (langabezia ordainsaria, pentsioa...). Kontraturik gabe, Lan Zuzenbideak ez du langilea babesten, istripuak ez dira lan-istripu moduan aintzat hartzen, ez da opor eskubidea aurrikusten, egindako lana ez da aurrera begira enpresan antzinasuna izateko kontuan izaten, ez da langabezia ordainsarirako eskubiderik bermatzen, ez da lan-bizitzan aintzat hartzen, ez du sindikatuen ordezkariak sindikalik baimentzen, eta abar. Azken finean, **kontraturik gabe ez dago eskubiderik**.

Horretaz gain, programa honek babestutako lanaldiaren ostean enpresak langilea kontratatzea erabakitzen badu, lan egindako hilabeteak ez dute antzinasunerako kontuan hartzen eta, beraz, enpresak beste edozein kontratazio berezi eta merkeago bat erabili ahal izango du gazte hauentzat (praktikak, ekintzaileen kontratu berria, eta abar).

**2// Eskaintzen den soldata gutxieneko lansaria baino urriagoa da eta pobreziaren mugaren oso azpitik dago<sup>3</sup>**. Lanaldi osoa ezartzen bada ere (40 ordu astean, asteburuak barne beharrezkoa baldin bada), hiru hilabetez gazteek jasotzen duten dirusaria 500 eurokoa da hilabeteko, 3 bat euro orduko. Nolanahi ere, ez da nahikoa bizitza proiektu autonomo bat garatu edo emantzipazio prozesu bat martxan jartzeko.

**3// Enpresek ordaindu behar ez duten langile bat lortzen dute eta trukean ez dute inolako konpromisorik hartzen**. Alde batetik, ez dute betebeharrak laboralik, esan den bezala, tartean kontraturik ez dagoelako. Baina, horrez gain, programa honek ez die enpresei inolako baldintzarik ezartzen bekadunen egonkortasunari begira, ez eta enpresek lortutako onurak gizarteari itzultzeko bestelako mekanismorik ere. Hau da, bekaren ondoren, enpresek ez dituzte zertan pertsona hauek lanean mantendu behar (haientzako inolako kosturik gabe hiru hilabete lanean pasa ostean), ez dute lanik suntsitu ez dutenik justifikatu behar, ez dute lanpostuak bekarioen bidez ordezkatzeko ari ez dituztenik frogatu behar, eta abar.

**4// Tituludun profesionali ikasketa praktikak eskaintzen zaizkielako, ez ikasten ari diren pertsonen**. Deialdietan profesional hauei "ikasle" esaten bazaie ere, programa honetan lekurik izateko baldintzetako bat titulua jada eskutartean izatea eta, beraz, profesionala izatea da (lanbide heziketakoa edo gradukoa), baina eskaintzen dena ez da enplegu bat, ezta lan praktikak ere (azken hauek gutxienez kontratu bat bermatzen dute).

Honetaz gain, eta guk jakin ahal izan duguneraino, ez zaio zertan ordezkari sindikal edo enpresa batzordeari langile hauen berri eman behar. Horrela, gazte hauek jasoko dituzten enpresetako langile eta lotura sindikalek ezin izango dute kontrolatu lanpostu duinak bekekin ordezkatzeko ez direnik.

**5// Eskaintzen diren praktikak jada ikasketetan zehar egin izan direlako kasu askotan**. Egoera hau lanbide heziketakoa Lehen Aukera eskaintzetan ematen da bereziki. Alegia, praktika ez-laboralak derrigorrezkoak diren zikloetan zehar. Izan ere, bekadunek ikasketa praktikak egin zituzten enpresa berean praktikak errepikatzea bultzatzen baita deialdi hauetan: "*Bere garaian, Ikaslanek kontuan hartzeko iradokizun batzuk egin zituen,*

---

<sup>3</sup> Eustaten arabera, pobreziaren muga larria hilabeteko **646 eurotan dago** (pertsona batentzat) [http://www.eustat.es/documentos/opt\\_0/tema\\_136/elem\\_1875/definicion.html#axzz2usq61VMt](http://www.eustat.es/documentos/opt_0/tema_136/elem_1875/definicion.html#axzz2usq61VMt) Ibilbide luzeko kolektiboek pobreziaren muga per capita BPGaren %37,5 an ezartzen dute, kasu honetan **894 euro/hilabete**. Online: [http://elkartzengasteiz.blogspot.com.es/p/pobreziaren-muga\\_04.html](http://elkartzengasteiz.blogspot.com.es/p/pobreziaren-muga_04.html)

*ikasleak enpresarekin aurretiaz balizko harremana izatea*”, “Lehen Aukera ikasleen hautaketa irizpideak (...) zeharkakoa edo zuzena den harremana aurretik eduki izana enpresarekin”<sup>4</sup>. Lehenago enpresarekin harremana izan baldin bada, zergatik sustatzen da bertara beka batekin itzultzea eta ez lan kontratu batekin? Zer da gure hezkuntza sisteman huts egin duena praktikak errepikatu behar izateko behin ikasketak bukatuta?

Beraz, programa honek ez du sustatzen gazte profesional hauek enpresetan lanean geratzea lan kontratu batekin.

Ikasketa praktiken ostean enpresa horietan kontratatu ez bazituzten, oraingoan hiru hilabetez kontratu loturarik eta kostu ekonomikorik gabe lanean izan ostean, eta hurrengo urteetan bekario gehiago egongo direnaren gobernuaren promesarekin, zaila da pentsatzea norbait kontratatuko dutenik.

Egoera hau unibertsitateen hitzarmenaren harira eskainitako postuetan errepikatu daiteke, master titulazioa eskatzen den kasuetan (derrigorrezkoak dira arkitekturan, zuzenbidean, hezkuntzan edo ingenieritzan lan egiteko), master hauek derrigorrezko praktika profesionalak eskatzen baitituzte.

**6// Lehen Aukerako bi proiektu pilotuetarako dirua Hezkuntza Sailaren aurrekontuetatik hartu da**, arlo honetan gero eta baliabide gutxiago eskaini eta zerbitzu, beka eta baliabideetan murrizketa gehiago egiten ari diren testuinguru batean. Gela bakoitzean dagoen ikasle kopurua igo da, irakasleen bajak ez dira laugarren egunera arte ordezkutzen, ikerketa beken zenbatekoa jaitzi da, eta abar.

Enplegu planak programa honen aurrekotua Lanbideren poltsikotik aterako zela ezartzen bazuen ere (honi dagokiolako enplegu politika aktiboen ardura), azkenean programa ez zen Lanbidera sartu eta hitzarmenak Hezkuntza Sailarekin sinatu ziren (1,2 milioi euro).

**7// Programa honek ez du gazteriak lan esparruan dituen egiturazko arazoetan arreta jartzen eta enpresa munduan irtenbide zuzena duten lanbideetan zentratzen da.**

Hasieran iragarri ziren 5.280 postuetatik soilik 1.200 hitzartu dira hitzarmen biren bitartez, eta Enplegu Planean ere ez ziren “enplegu” bezala aurreikusten. Aldiz, parte-hartzaileak “gazte enpleabilizatu” bezala kontuan hartzen zituen emaitzetan. Gazte hauek, behin beka bukatuta, zuzenean 0 puntura itzultzen dira, ikasketa prozesuan izandako esperientziarekin alderatuta inolako esperientzia berririk lortu gabe, langabezia ordainsarirako eskubiderik gabe eta, batik bat, lan-txertatze bermerik gabe.

Bukatzeko, programa honen helburua solik enpresetan praktikak egitea da, eta horrela, enpresa munduan islada duten lanbideetan jartzen du arreta zuzena.

**8// Diru publikoarekin baldintza prekarioak ezartzen ari dira eta honek gazteriaren lan eskubideetan atzera pauso bat ematera bultzatzen lagundu dezake.**

Gazteriaren enplegua enplegutzat hartu behar da, eta ez gauza ezberdin bat bezala. Gazteak garelako gutxiago ordaindu ahal digutela edo kontraturik gabe lanean aritu gaitezkeela pentsatu eta bultzatzea zuzenean gure eskubideak urratzea da. Hau guztia diru publikoa baliatuz egitea grabeago bihurtzen du arazoa.

Lehen Aukera programa ezartzen duen Enplegua sustatzeko Plana 2013ko martxoaren 8an Legebiltzarraren egindako osoko bilkuran onartutako proposamenetan oinarritu zen. Bertan, ganbarak 2012ko Lan Erreforma gaitzetsi zuen. Hala ere, lehen esperientzia laboralaren programa honen bitartez gazteoi erreforma horretan zehazturiko baldintzak baino baldintza okerragoak ezartzen zaizkigu, gure lan eskubideen murrizketa bultzatuz.

---

<sup>4</sup> Lanbide Heziketan egindako Lehen Aukera deialdietatik ateratako esaldiak.

**9// Azken finean, Lehen Aukerak eskaintzen duena ez da lehen esperientzia bat, ezta enplegu aukera bat ere.** Ez da aukera laboral bat, eskaintzen dena ez delako enplegu bat eta bertan parte hartzeak ez duelako inolako enplegurik sortuko. Eta ez da lehen esperientzia bat, ikasketa praktika ez-laboralak ikasketa prozesu gehienetan egiten direlako jada.

Izatez, benetako lehen enplegu aukera bat eskaini nahiko lukeen Lehen Aukera batek honakoa bete beharko luke: parte hartzen duten pertsonen lan eskubideak bermatzea eta helburua enplegu duina sustatzea. Horregatik guztiagatik, manifestu hau sinatzen dugun elkarte, sindikatu eta gizarte mugimenduok Eusko Jaularitzari eskatzen diogu Lehen Aukera programaren hurrengo deialdietarako ezarritako baldintzak alda ditzan. Beti ere, gazteen enplegua sustatzeko balio dezan, **hurrengo puntuak proposatzen ditugu:**

- Beka eredia erabili ordez, enpresa eta langile gaztearen artean lan **kontratazio bat egotea bermatu dezala programak**. Horrela, gazteen lan eskubideak bermatuak izango dira (kotizazioak, langabezia eskubidea, hitzarmen kolektiboak, eta abar.)
- Ezarritako **soldata egin beharreko lan orduekin bat etor dadila**, eta bereziki, lan **hitzarmen kolektiboek** esaten dutena errespetatu dezala.
- Programan parte hartzen duten enpresentzako **egonkortasun klausulak** ezarri ditzala, behin diruz lagundutako lanaldia beteta, langilea mantentzen konprometitu daitezen.
- Programan parte hartu nahi duten enpresek haien **enpresa batzorde edo lotura sindikalen oniritzia** izan behar dutela ezarri dadin programaren deialdian.
- Programan parte hartzen duten langile gazteek **enpresan beteko duten egonaldia luzatu** dezan, Europar Batasunetik praktiken inguruan egindako argibideak jarraituz, betiere programaren kontratazio baldintzak aurreko puntuetan esandakora moldatuta<sup>5</sup>.
- Lehen Aukera programan parte hartzen duten gazteen **jarraipen bat** egin dezan behin bukatuta, haien **enpleabilitate eta lanaratztea hausnartu** ahal izateko.
- **Enplegu politika aktiboetara bideratutako dirua politika horietako aurrekontuetatik hartu dadila**, eta ez hezkuntza bezalako beste sail batzuen aurrekontuetatik. Horrez gain, programa hau eta honen antzeko neurrien kudeaketa Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzura bideratu dezala, gazte guztiak lanpostu horiek eskuratzeko baldintza-berdintasunean egon daitezen.

**Ekimena:** Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko (EGK).enplegu foro gaztea eta hezkuntza foro gaztea (*Hezkuntza Foroa*)

**Parte hartzen duten entitateak:** Ikasle Abertzaleak, CCOOgazteak, Federación Vasca de Junior Empresa, JSE-EGAZ, Ikasle Ekintza, Ecuador Etxea, Iratzarri, Asociación gitana Kale Dor Kayiko, Ezker Anitza gazteak eta gazteak izen propioan.

**Atxikimenduak (2014ko apirilaren 11n):** Lilith Euskadiko Emakume Gazteak, EHNE, CCOO irakaskuntza, LAB sindikatua, Gazte Abertzaleak, Alternatiba Gazteak, ESK sindikatua, Gazte Komunistak, Juventudes Obreras Cristianas (JOC), Elkartzen, ELAgazteak, Gazte Kanpus, UGT Euskadi eta Consell Nacional de la Joventut de Catalunya (CJNJ).

---

<sup>5</sup> Europako kalitatezko praktiketarako irizipideak <http://www.cje.org/descargas/cje4827.pdf>